

kutxabank

KUTXABANKen TERMINO ETA BALDINTZAK APPLE PAY APLIKAZIOAREKIN MUGIKOR BITARTEZ ORDAINTEZKO

Zerbitzuaren deskribapena

Apple Pay aplikazio bat da, Apple Inc. konpainiaren aplikazio bat, hain zuzen, eta Bezeroari Kutxabanken ordainketa txartel bat atxikitzeke edo lotzeko aukera ematen dio, txartel horrekin ordainketa presentzialak nahiz ez presentzialak egin ahal izateko bere Apple gailu bateragarriaren bitartez (iPhone, Apple Watch, Mac edo iPad).

Apple Pay zerbitzua (hemendik aurrera, Zerbitzua) jasotzeko, Termino eta Baldintza hauek onartu behar dira, eta Apple gailu bateragarrian (hemendik aurrera, Gailua) Near Field Communication (NFC) teknologia aktibatuta eta eguneratuta izan behar da.

Era berean, Zerbitzua erabiltzeko, baliteke Bezeroak Apple konpainiaren Erabiltzeko Termino eta Baldintzak eta pribatutasun politika onartu behar izatea, baita, hala badagokio, Kutxabank ez den hirugarren baten Termino eta Baldintzak ere. Apple Pay aplikazioan dauden Apple konpainiaren webguneen hornitzaileak, sareko zerbitzuen eta hirugarrenen beste zerbitzu batzuen hornitzaileak eta gailuen hornitzaileak termino eta baldintza eta pribatutasun politika bereziei atxikita daude.

Zerbitzuaren funtzionamendua

Txartele(ta)ko datuak Gailuan sartu eta gordeko dira, modu tokenizatuan. Bezeroak ingurune seguru batean izan beharko du Gailua, eta Zerbitzuan eragiketak egitea ahalbidetuko dion kode oro konfidentzialki gorde beharko du.

Apple gailu bateragarri bat duten Bezero pertsona fisikoek Apple Pay aplikazioan alta hartu ahal izango dute, baldin eta gailuaren bertsioa iOS 10 edo berriagoa bada eta Apple Inc. konpainiaren termino eta baldintzak onartzen badituzte.

Bezeroak bere gailuko Apple Pay aplikazioan sartu beharko du, eta alta eman nahi dion Kutxabank txarteletik eskatzen zaizkion datuak idatzi beharko ditu (txartelaren zenbakia, epemuga eta, hala badagokio, CVV zenbakia); horretarako, txartelari argazkia atera diezaioke edo, bestela, zenbakia eskuz idatzi. Horren ondoren, Termino eta Baldintza hauek onartu beharko ditu.

Bezeroaren nortasuna eta baimena bermatzearren, Bezeroak OTP gakoa –behin erabiltzekoa– idatzi beharko du Gailuaren pantailan irekiko den eremuan; gakoa SMS bidez jasoko du, Kutxabank Online Banka zerbitzuan txartel horrek atxikita duen telefono-zenbakian. Era berean, 900 44 55 66 telefono zenbakira deituta ere identifika daiteke. Dena den, zenbait txartelen kasuan, baliteke Apple konpainiak ez eskatzea OTP gakoa idazteko.

Bezeroak gehienez ere 12 txarteli eman ahal izango die alta Zerbitzuan.

kutxabank

Zerbitzuan alta har dezaketen Kutxabank txartelak honako hauek dira:

Kutxabanken VISA txartelak, partikularren, enpresen eta profesionalen segmentuetakoak, Dual, Classic, Oro, Extra, Debit, Dual Debit, Corporate, Ingeteam, Nakar, Partaide produktuetan sartzen direnak.

Halaber, Kutxabankek Zerbitzu hau erabil dezaketen txartelak aldatu ahal izango ditu, Bezeroari aldez aurretik jakinaraziz gero.

Hala badagokio, Bezeroak OTP gako bat idatzi beharko du Kutxabank txartel berri bati Zerbitzuan alta ematen dion bakoitzean, betiere goian deskribatu dugun prozedurari jarraikiz. Ordainketa presentzialak egiteko, Bezeroak Apple Pay aplikazioan sartu beharko du bere iPhone edo Apple Watch gailuaren bitartez, ordainketa egiteko erabili nahi duen Kutxabank txartela hautatu beharko du, eta saltokiko TPV terminalera hurbildu. Saltokiko terminalak contact-less izan beharko du. Zerbitzua iPhone gailuarekin baliatzeko bi aukera daude: Touch ID botoia sakatuta klik bikoitza eginez iPhone gailua blokeatuta dagoela, edo, bestela, mugikorra desblokeatuta Touch IDaren edo desblokeatzeko zenbakizko kodearen bitartez. iPhone X eta Apple Watch gailuen kasuan, Bezeroak klik bikoitza egin beharko du gailuaren alboko botoian. Ordaintzeko eragiketa besterik gabe abiaraziko da, ezer gehiago egin behar izan gabe. TPV terminaleko softwarearen bertsioa ez badago eguneratuta, TPVak txartelaren PIN kodea eskatuko du ordaindu beharreko zenbatekoa 20 eurotik gorakoa baldin bada.

Ordainketa ez presentzialak egiteko, Bezeroak Apple Pay hautatu beharko du saltokiaren webgunean aukeran agertuko zaizkion ordaintzeko moduen artean. Jarraian, ordainketa egiteko erabili nahi duen Kutxabank txartela hautatu beharko du, eta Touch ID botoia sakatu edo iPhone gailua desblokeatzeko zenbakizko kodea idatzi, ordaintzeko eragiketa abiaraz dadin. iPhone X gailuen kasuan, Face ID erabili beharko da.

Halaber, Apple Pay aplikazioari esker, Kutxabank txartelak kutxazain automatikoetan ere erabil daitezke, dirua ateratzeko eta saldoa eta mugimenduak kontsultatzeko; horretarako, txartelaren PIN kodea idatzi beharko da.

Zerbitzuaren kostua

Kutxabankek ez du kargurik kobratuko Zerbitzua emateagatik, zerbitzu hori, kasuan kasu, Kutxabank txartelen erabilerari dagokiona ez izan arren; Kutxabank txartelen erabilerak txartel bakoitzaren kontratuan bertan deskribatuta daude.

Aurrekoa gorabehera, jakin ezazu Zerbitzu hau erabiltzaileak hirugarrenen karguak, mugak eta murrizketak izan ditzakeela eta horrek eragina izan dezakeela zure txartela zure Gailuan erabiltzean; esate baterako, zure Sareko zerbitzuen hornitzaileen karguak, datu mugikorrak edo testu mezuen zerbitzua erabiltzeagatik, besteak beste.

Galtzea edo lapurtzea

Bezeroak lehenbailehen eta atzerapenik gabe jakinaraziko dio Kutxabanki Gailua galdu duela edo lapurtu diotela, Gailuaz bidegabe jabetu direla, edo bere baimenik gabe erabili dutela, gertaera horren berri izan bezain laster; horretarako, eskura dituen bitartekoetatik edozein erabil dezake edo, bestela, 94 401 70 00 telefono zenbakira deitu.

kutxabank

Horri dagokionez, Bezeroak telefono mugikorraren konpainiari edo Gailuaren saltzaileari egiten dion jakinarazpena ez da nahikoa izango txartela blokeatzeko.

Zerbitzuari atxikitako Kutxabank txartelen bitartez ordaintzeko eragiketak baimentzea

Bezeroak baimena ematen duen unetik aurrera, Termino eta Baldintza hauetan xedatutakoari jarraikiz, ordaintzeko eragiketa baimendutzat jotzen da eta, beraz, ezin izango da ezeztatu.

Gailuan hirugarren pertsonak autentifikatzeko elementuak (hatz-marka, aurpegia ezagutzea eta abar) sor badaitezke eta elementu horiek ordainketa bat baimentzeko baliagarriak badira, hirugarren pertsona horiek egindako ordainketak baliozkoak izango direla esan nahi du horrek, ondorio guztietarako, eta Kutxabankek ez du inolako erantzukizunik izango horri dagokionez.

Erantzukizunaren mugak

Kutxabank ez da erantzule izango ordainketak egiteko txartel mugikorrak ez badu behar bezala funtzionatzen, matxuraren batengatik edo Apple Pay aplikazioan eragina duen bestelako gorabehera batengatik. Era berean, ez da Kutxabanken erantzukizuna izango Bezeroari hardwarea edo softwarea eskaintzea.

Kutxabankek egindako txartelen sarbidea, mantentze lanak eta errepresentazio birtuala hornitzaile teknologikoaren, gailuen hornitzaileen eta sarearen hornitzaileen erantzukizun dira. Kutxabankek ez du hornitzaile horien eragiketen gaineko kontrolik, ez du haiekin eragiten eta ez ditu kudeatzen; hori dela eta, Kutxabankek ez du inolako erantzukizunik izango Zerbitzua eten edo erortzen bada.

Kutxabankek ez du inolako kontrolik Apple Inc. konpainiak edo talde horretako edozein konpainiak Zerbitzua erabiltzeko baldintzei buruz eta pribatutasun politikari buruz har ditzakeen erabakien gainean. Horregatik, Zerbitzuaren ezaugarri eta funtzionaltasunak automatikoki eguneratu daitezke, aurrez jakinarazi gabe.

Kutxabank behartuta egon daiteke Zerbitzuaren bidez ordaintzeko eragiketak noiznahi zabaldu, murriztu edo etetera, bere kontrolpean ez dauden arrazoiengatik edo Apple taldearen erabakiengatik.

Halaber, Kutxabankek ez du bermatuko, ezta bere gain hartuko ere, datu biometrikoak gordetzeko aukera ematen duen Gailuaren segurtasunarekin, autentikotasunarekin eta osotasunarekin lotutako erantzukizunik. Kutxabankek ez du informazio biometrikorik eskuratuko, ezta gordeko ere, eta ez da erantzule izango hirugarrenek informazio hori erabiltzen badute.

Iraupena

Zerbitzuak ez du epemugarik izango. Edonola ere, Gailuan gordeta duen txartel orori baja eman ahal izango dio Bezeroak, noiznahi eta berehalako ondorioekin, Kutxabanki jakinarazpenik egin behar izan gabe.

Horrek ez du esan nahi amaitu gabe dauden eragiketak likidatu eta kargatuko ez direnik; izan ere, txartelaren kontratuetan hitzartutakoaren arabera likidatu eta kargatuko dira.

Kutxabankek, bere aldetik, Zerbitzua eten edo bertan behera utz dezake baina Bezeroari jakinarazi beharko dio, gutxienez, bi (2) hilabete lehenago. Dena den, Kutxabankek Zerbitzua

kutxabank

emateari utziko dio berehala, baldin eta Apple Inc. konpainiak Zerbitzua emateari uzten badio edo, hala badagokio, Apple Inc. konpainiaren eta Kutxabanken arteko akordioa amaitzen bada.

Zerbitzuaren Termino eta Baldintzak aldatzea

Kutxabankek Termino eta Baldintza hauek aldatu ahal izango ditu Bezeroari banakako jakinarazpena helarazten badio aldaketa indarrean hasi baino, gutxienez, bi hilabete lehenago. Aldaketek berehalako ondorioak izan ditzakete, betiere Bezeroarentzat hobekuntza baldin badakarte edo, Apple Pay plataformaren titular den aldetik, Apple konpainiaren erabaketan oinarrituta ezarri badira. Zerbitzua erabiltzen jarraitzen baduzu, aldaketa horiek isilbidez onartzen dituzula esan nahiko du horrek.

Apple konpainiak plataforman egindako aldaketak direla eta, Kutxabankek eskubidea izango du, hala badagokio, berak egiten dituen txartelak Zerbitzuan txertatzeko aukera eskaintzeari uzteko.

Txartelaren kontratuari atxikitzea

Txartela Zerbitzuari atxikitzea edo lotzea ez da hartzen txartel berria egitearen pareko. Termino eta Baldintza hauek onartzeak ez ditu ordeztzen, ezta aldatzen ere, Bezeroaren eta Kutxabanen artean hitzartutako txartelen kontratuetako baldintza orokor eta partikularrak eta, bereziki, baina ez horiek bakarrik, honako hauei buruzko baldintzak: dirua ateratzeko mugak, txartelen erabilera pertsonal eta besterenezina, likidazioen baldintzak, gakoak gordetzea eta abar.

Bestalde, Zerbitzuari atxikitako Kutxabankek txartelen kontratuarekin kontraesanean egon daitekeen orotan, txartelen kontratuetako Baldintza Orokor eta Partikularrak gailenduko zaizkie Termino eta Baldintza hauei.

Datu pertsonalen tratamendua

Txartelaren zenbakiari, iraungitze datari eta Bezeroaren CVV gakoari buruzko datuak gailuen hornitzailetik hartuko dira eta Kutxabank SA konpainiaren –IFK: A95653077 eta egoitza soziala: Kale Nagusia 30 (Bilbo)– informazio sisteman sartuko dira, tratamenduaren erantzule den aldetik, helburua eta oinarri juridikoa honako hauek izanik: Apple Pay plataformako funtzionalitatearen transakzioak ahalbidetzea eta txartelak lotzeko zerbitzuaren erabilera bermatzea.

Apple Pay aplikazioarekin egiten diren ordainketa eragiketak burutzeko, Apple konpainiak informazioa eman ahal izango dio Kutxabanki –txartela egin duen erakundea den aldetik–, ordainketako sareari eta Kutxabanke baimendutako beste hornitzaile orori, aplikazioa erabili ahal izateko eta iruzurrezko jardueren prebentziorako.

Txartelaren datuak Bezeroaren gailuan sartu eta gordetzen dira; beraz, Bezeroak ingurune seguru batean izan beharko du Gailua, eta pasahitza modu erabat konfidentzian tratatu beharko du titularrak; horretarako, titularrak eragotzi egin behar du Apple Pay aplikazioaren bitartez ordainketak egiteko baimendu gabeko hirugarrenek beren hatz-marka Bezeroaren gailuan erregistratzea, txartela Apple Pay aplikazioan aktibatuta duen bitartean.

kutxabank

Bezeroak datu pertsonalak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurkaratzeko, tratamendua mugatzeko, eramangarritasuneko eskubideak eta automatizatutako banakako erabakien xede ez izateko eskubidea balia ditzake, noiznahi. Horretarako, idatzi bat bidali behar da Kutxabanken egoitza sozialera (lehen aipatu dugu) eta NANaren fotokopia erantsi behar da.

Nolanahi ere, Kutxabankek, Txartela egin duen erakundea izaki, www.kutxabank.com webgunean dagoen Datu Pertsonalen Babeserako Politikaren arabera tratatuko ditu datu pertsonalak.

Markak

Apple Pay, Apple iPhone, iPad, Mac, Apple Watch, Touch ID, Face ID markak Apple Inc. konpainiaren marka erregistratuak dira (Apple Inc., One Apple Park Way, Cupertino, CA 95014, USA).

Komunikazioak

Jakinarazpen edo komunikazioak alde bakoitzaren helbidera bidaltzea adostu dute aldeek edo, bestela, Txartela egiteko Kontratuan adierazitako helbideetara; halaber, aldaketak kontratu horretan bildutako baldintza berdinetan jakinarazi beharko dizkiote elkarri.

Legedia

Termino eta Baldintza hauek Espainiako legediaren mende egongo dira.